



Joxerra Garzia

♦ IDAZLEA

Prokusto Estresburgon

ERRALDOI INDARTSUA izan arren, ostalari ezinago adeitsua omen zen Prokusto: oherik onena, burdinazkoa, bertan ostatu hartzen zuten bidaiariari eskaintzen zien beti. Eskaintzarekin amaitzen zen, ordea, haren adeitasuna: ohean etzan orduko, hantxe lotzen zuen Prokustok bidaiaria, “kate motz eta astun batez”, Joxan Artzeren hitzez Benito Lertxundik ziokeen moduan. Bidaiaria ohea baino luzeago gertatzen bazen, zerra hartu eta hanken aldetik “sobratutako” puskak ebakiko zizkion Prokustok riki-raka, kupidarik batere gabe; bidaiaria ohea baino txikiagoa zenean, aldiz, gizajoari bi muturretatik heldu eta alde banatara tira egingo zion, harik eta oheraren luzera bereko bihurtu arte.

Egunotan, Estrasburgoko epaia dela eta hegoalde hauetan esan eta idatzi diren gehiegikeriak entzun eta irakurrita, burutik uxatu ezinda nabil Prokusto gurea, eta nago gure erraldoiak adeitasuna bezain oker ulertzen ote duen hemen zenbaitek demokrazia, edota are okerrago ere.

Egia da alderdi eskuindar nagusiaren sotoetan gordeta egon diren *Francokumeak* gero eta lotsagabeago ari direla zaunka, baina hori da, nire ustez, gutxienekoa. Zaunka zantarra baino mila bider arriskutsuagoa iruditzen zait epai hori demokrazia-arentzat arriskutsua eta biktimentzat iraingarria dela esaten tematu direnen diskurtsoa.

Orain arte demokrazia eta indarrean dagoen legedia gauza bat bera direla aldarrikatu dutenak dira, hain oker ere, orain epai hau ez onartzearen alde ageri direnak. Oraintxe ohartu bide dira legeak ez direla beti onak, batzuetan legearen kontra egitea dela demokrazia sendotzeko bidea. Bejondeiela, baina orain epaia dela eta esaten ari direna gogoan, egin dezatela atzera begirako errebasoa, eta


kontsidera ditzatela, besteak beste, honako bi legeok: Espainiako Konstituzioa bera batetik, eta Alderdi Politikoen Legea bestetik.

Errepasoa jator egiten duenak aitortu beharko du lege horiek antz handia dutela Prokustoren ohearekin. Konstituzioa, komeni denean batzuentzat *Biblia* baino santuagoa den lege guztien lege hori, idatzi zen moduan idatzi zen, erredakzioaren ardura zutenek ezpataren hotza (eta zorrotza) bizkarrean sentitzen zutela uneoro, eta ezpatak agintzen zuen zer kabitu behar zen ohe komun hartan, eta zer ez. Aurrerago, kabitu behar ez zuten batzuek ikasi zuten ohearen neurrira egokitzen, eta legezko bilakatu ziren. Hori ikusita, ohea txikiago egitea erabaki zuten besteek, eta horixe da, funtsean, Alderdi Politikoen Legea. Ondorioz, dena (eta denak) ETA bihurtu zen, legeari izkin egiteko propio sortutako legearen bidez.

Biktimei dagokienez, saiatu arren ezin dut ulertu biktimei arrazoi politikoa eman behar zaiela diotenen arrazoibidea, batez ere ikusita biktima batzuek (eta ez prezeski gehien sufrituek) biktima estatusa bera ere ukatzen dietela suntsitu arteko mendeakaren estrategiarekin bat egiten ez duten biktimei.

Demokrazia suntsitu nahi dutenei kontra egiteko demokratikoak ez diren bideak erabiltzen dituen sistemak, suntsitu nahi omen dituzten horien pareko bihurtzen du bere burua, bai Guantanamo eta bai hemen. Badirudi Estrasburgoko epaiak estresaren erresuma bihurtu duela Espainia, eta lastima da, zinez, aukera ezin hobea baitzen epaia aintzat hartu eta urteotan propio erakitako Prokusto-ohe guztiak Erorien Ibarrean lurperatzeko (edo, are hobeto, han ehortziaren hondakinekin batera

erre eta ahanzturaren lau hai-zetara barreiatzeko). ■



Antton Olariaga

